
IZENA: **"IZKUTAKETAN"**
MOTA:
MARRAZKIA:
ARAUAK:

Betiko jolasa.

AIPATZEKOAK:Egokia da haurrak izkutatzen ikasten hasteko.

IZENA: **"1,2,3 AXERI!"**
"1,2,3 TXORIAK KAKA EGIN DU !"
« 1,2,3 KONTAKATILU ! »
MOTA:Harrapaketa
MARRAZKIA:



ARAUAK:

Jolaskide bat paretan begiak estalita.

Beste jolaskideak distantzia batera jarriko gara.

1,2,3 … esaldia esaten duen bitartean gainotzekoak beragana hurbiltzen hasiko gara.

Esaldia bukatzean buelta eman eta ea norbait mugitzen harrapatzen duen.Mugitzen ikusiko ez gero atzera bidaliko du eta hasieratik berriz.

Gainontzekoak izoztuta.

Horrela aurreratzen pareta ikutu arte.


Ikutzerakoan aurrez adostutako izen bat esan. Adibidez:tomate,txorixo...

Denak iristean harrapatzaileak eskuak zabalduta, denok behatz batetik eusteko jarriko da.

Hitz majikoa estean korrika norbait harrapatuko du, lehenago ordea tranpa egin dezake beste hitz antzekoak esaten.

AIPATZEKOAK: Txikiekin gelditzeko keinuak nabrmenagoak egiten ditugu, postura esajeratuak erabiliz eta pailazoarena eginaz. Horrela garbiago geratzen da geldirik egon behar dugula, jostagarriagoa da.

IZENA: **“KOLOREEN SORGINA” edo “KOLOREEN SUGEA”**
MOTA:Harrapaketa
MARRAZKIA:



ARAUAK:

Sorgina: “kax-kax-kax”(ate joka)
Gainontzekoak: Nor da?
Sorgina: Koloreen sorgina naiz!
Gainontzekoak: Eta zein koloreren bila zatoz?
Sorgina: Gorria!!!!!

Sorgina kolore gorriko zerbait duenaren bila abiatuko da.

Harrapatzen duena izango da hurrengo sorgina.


AIPATZEKOAK: Sorginarena egiteko lehen aldietan laguntza behardute. Askotan kolorearena ez dute errespetatzen baina hasierako elkarrizketa polita ateratzen da.

IZENA: "**SUHILTZAILEA**"
MOTA: Korro jolasa
MATERIALA:

Klarioanarekin talde guztiarentzako borobil txiki bana, baina bat guztien erdian kokatuko dugu. Bestela, uztaiak, margoak... etxeak markatzeko erabilgarri zaiguna.

ESALDIA: Sua! Sua!
Kea! Kea!

MARRAZKIA:



----Denontzako borobilak zirkuluan, bat ezik erdian kokatuta (suhiltzailearena)------.

ARAUAK:

Borobilak etxeak dira.

Bakoitzak bere etxea du, batek ezik: suhiltzaileak.

Suhiltzaileak erdiko borobilean du tokia.

Suhiltzaileak emango dio hasiera jolasari Sua!Sua! oihukatuz.

Sua dagoenean denok bilatu beharko dugu beste etxe (borobil) bat,baita suhiltzaileak ere.

Bat tokirik gabe geratuko da eta erdian suhiltzailearen tokian jarriko da.


Jokoarekin jarraituz Sua!Sua!.......

AIPATZEKOAK:

Jolas honek antza handia du aulkien jolasarekin. Hemen ordea, ez dugu musikarik behar ezta aulkirik ere. 3 eta 4 urtekoekin hasieran, borobil batetik bestera mugitzen lagundu behar diet. Baina segituan hartzen dute martxa. Arazo txiki bat izaten dut sarritan, beste borobiletara jo ordez denek nahi dutela suhiltzailearen tokia hartu eta borrokan hasten dira. Zaharragoekin ez da arazo hori sortzen, baina debekatu egiten diet besterik gabe ondoko borobilera pasatzen, derrigorrez gehiago mugi arazten ditut.

Txikiekin beti erabiltzen dugu "Sua! Sua!", baina 5. mailakoak adibidez "Kea! Kea!" Ere erabiltzen dute tranpetan.

IZENA: **PIN PAN SUA!**
MOTA:Goma jolasa.
MATERIALA:Goma
ESALDIA:Pin Pan Sua! Amonaren pikua!
Pin Pan Sua! Aitonaren pikua!
MARRAZKIA:



ARAUAK:

Bi jolaskidek goma gurutzatuta, alde banatan jarrita alde batera eta bestera mugituko dute esaldia diogun bitartean.

Bi esaldiak esanda, alde bakoitzak hankarekin zapalduko dute, bidea zailduz.

Gainontzeko jolaskide guztiak ilaran jarrita, goma tartekik pasa beharko dute ikutu gabe.

AIPATZEKOAK:

Bistan da, 3 eta 4 urtekoekin ez ikutzearena zail samarra dela, baina primeran pasatzen dute goma zeharkatzen.